

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. APARTAMENTUAK 2019KO ABUZTUA

Euskal AEko apartamentu turistikoetako gaualdiak %1,6 gutxitu ziren 2019ko abuztuan

Uztaileko eta abuztuko turista-balantzea: Sarrerak gehitu dira %1,1 eta gaualdiak %2,3

Euskal AEko apartamentu turistikoetako bidaiari-gaualdiak 44.323 izan dira 2019ko abuztuan, zeina den %1,6ko jaitsiera, Eustatek landutako datuen arabera. Gaualdiek behera egin dute hiru lurraldeetan: %3,8 Araban, %1,1 Gipuzkoan eta %0,8 Bizkaian.

Bestalde, Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrerak 2019ko abuztuan 17.748 izan ziren, 2018koaren aldean %5,4ko igoera. Hiru lurraldeetan gehitu dira sarrerak: %23,7 Araban, %4,0 Gipuzkoan eta %2,6 Bizkaian.

Gaualdiak, sarrerak eta batez besteko egonaldia Euskal Aeko apartamentu turistikoetan. 2019ko Abuztua

	Gaualdiak		Sarrerak		Batez besteko egonaldia	
	2019/08	m/m-12 (%)	2019/08	m/m-12 (%)	2019/08	2018/08
EUSKAL AE	44.323	-1,6	11.748	5,4	3,77	4,04
Estatukoak	29.542	-6,3	7.089	2,7	4,17	4,57
Atzeritarrak	14.780	9,3	4.659	9,9	3,17	3,19
ARABA/ÁLAVA	9.603	-3,8	1.503	23,7	6,39	8,21
Estatukoak	7.479	-15,1	1.089	19,1	6,87	9,63
Atzeritarrak	2.124	81,1	413	37,7	5,14	3,91
BIZKAIA	17.818	-0,8	6.003	2,6	2,97	3,07
Estatukoak	11.482	-2,4	3.669	-2,3	3,13	3,13
Atzeritarrak	6.336	2,3	2.334	11,4	2,71	2,95
GIPUZKOA	16.902	-1,1	4.242	4,0	3,98	4,19
Estatukoak	10.581	-3,3	2.331	4,3	4,54	4,90
Atzeritarrak	6.321	2,7	1.911	3,6	3,31	3,34

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Batez besteko egonaldia, abuztuan, 3,77 egunekoa izan da; 2018koan, 4,04koa. Araban lehengo urteko 8,21 egunekotik aurtengo 6,39kora laburtu da; Bizkaian 3,07kotik 2,97kora laburtu da; Gipuzkoan 4,19kotik 3,98kora laburtu da.

2019ko abuztuko turista-balantzea: turista-sarrerak %0,9 hazi dira, Bizkaia nabarmenduta %2,9ko hazkundearekin

Hotelak, landa-ostatuak eta apartamentu turistikoak batera, 392.319 sarrera erregistratu dira 2019ko abuztuan, %0,9ko gehikuntza dena aurreko urteko hil beraren aldean. Bizkaian Euskal AEko sarrera guztien %47,4 kontzentratzen dira, eta sarreraren batura %2,9 gehitu da. Gipuzkoan, non sarrera guztien %38,5 baitira, ez da aldakuntzarik gertatu (%0) 2018ko abuztuaren aldean. Halaz ere, Araban, non Euskal AEko sarrera guztien %14,1 dauden, %3,3ko jaitsiera gertatu da.

Gaualdiak, establezimendu turistiko hartzaileen orotarakoan, %1,1 egin dute gora. Gipuzkoan zein Bizkaian eboluzioa positiboa izan da: %2,4 gaualdi gehiago lehenean eta %0,9 gehiago bigarrean. Aldiz, Araban zeinu negatibokoa da, %1,9 jaitsita.

Gaualdiak eta sarrerak Euskal Aeko hotel, landa ostatu eta apartamentuetan. 2019ko Abuztua

	Gaualdiak		Sarrerak	
	2019/08	m/m-12 (%)	2019/08	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	915.078	1,1	392.319	0,9
Araba/Álava	121.592	-1,9	55.346	-3,3
Bizkaia	410.449	0,9	186.049	2,9
Gipuzkoa	383.037	2,4	150.924	0,0

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Uztaileko eta abuztuko turista-balantzea: Sarrerak gehitu dira %1,1 eta gaualdiak %2,3

Euskal AEko **hotelak, landa-ostatuak eta apartamentu turistikoak batera**, 2019ko udako bi hiletako, uztaileko eta abuztuko, balantzea itxi da 752.816 bidaiariren etorrerarekin, %1,1 gehiago, 7.998 bidaiari gehiago, iaz baino. Lurraldeka, hazkunderik handiena izan da Bizkaian, 7.036 sarrera gehiagorekin, %2,0ko igoera. Gipuzkoan ere positiboa izan da balantzea, 6.815 sarrera gehiagorekin bi hiletan, %2,3 gehiago. Araban, aldiz, murriztu dira bidaiarien sarrerak 5.854tan, zeinek ekarri duen %5,4 gutxiago 2018ko uztailean eta abuztuan baino.

Gaualdiak, bestalde, 1.711.590 izan dira, %2,3 gehiago 2018ko uztailean eta abuztuan baino, 38.174 gaualdi gehiagorekin orotara. Gipuzkoan gora egin du, 28.030 gaualdi gehiagorekin, %4,0ko hazkundera. Ondoren, Bizkaian %1,4ko igoera izan da, 10.689 gaualdi gehiago. Azkenik, Araban jaitsi egin dira 545etan, %0,2ko murrizketa.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
 Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
 Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62